

# 74R

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

285n. zenbakia  
ekaina 2003



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



**MUNGIA**

**VILLELA'TARREN IKURDIA**

# PRUDENTZIO DEUNAREN GAU-JAI

Arabarrak pozik eta aundikiro ospatu dabe Prudentzio deunaren jaia, lendakari ta guzti. Urtero urreratzen gara ara baiña aurten ezin izan dogu eta samintasunez emen joakie arabarrai gure gomutea.

Egea ta Angiozar´eko Otxoa´tar Jesus´ek bialdu dausku eskutitza eta onegaz batera San Pru-

dentzio´ren omenez abesten dan “retreta” edo gau-kanta euskeraz. Gure egutegirako da, baiña egutegia irarkolan dago eta zuzenketak be eginda, orregaitik ezin argitaratu. Datorren urtekoan, ia urrengoan aiztuten ez ba´jaku. Eskerrik asko Josu!

## PRUDENTZI DEUNAREN GAU-JAYA (“RETRETA”)

Ozendu bediz txuntxun da turuta,  
geure Deunaren GAU-JAYA da-ta!

1) Arabar danok, egun andi ontan,  
pozaren pozez ta biotz batez,  
geure Zaindari dan Prudentzi Deuna  
goratzen dogu ots aundiz.  
OZENDU BEDIZ...

2) Plaza Barria ta Probintzi-koa,  
jendez, apaiñez, argiz beterik...  
Doiñu goxo bat iñoiz edo berriz  
entzuten dogu poz-pozik.  
OZENDU BEDIZ...

3) Doiñu t´argia zeruruntz ba-doyaz,  
era berean, geure otoya,  
gartsuki eskatzen: «Zaindari maitea,  
emon eiguzu BAKEA!»

**Josu Exea**

Gazteiz´en 1989´ko Jorraillaren 28´n

## ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk´ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

# IKASTEN ETA ALFABETATZEN

Deia'n irakurri dodaz euskaltegien jakingarri batzuk (2003-04-15) eta gai oneri buruz gauzatxu batzuk esan gura dautsedaz gure irakurleai.

## Zenbat ikasle

Azkenengo amabi urteetan euskaltegiak 5000 ikasle galdu dabez, len 38000 ziran eta orain 34.000 dira.

Zergaitik urritze au? Aspertu egin dira asko? Naikoa ikasi dabe? Ala asikerako berotasuna galdu da?

Zori txarrez, asko eta asko dira alfabetatu bageko euskaldunak eta ikasleak urritzeak gogo urritzea esan nai dau.

## Adiña

Gaur ikasten dabilzanak adiñez lengoak baiño elduagoak edo zarragoak dira eta gaiñera lanean dabilzanak eta euskera geiago dakienak.

Orra or iru gauza gogoangarriak: adiñez eldu-goak dira, bear ba'da gazteago diranak geienak ikastoletan alfabetatuta dagozelako. Len 25-29 urtekoak ziran eta orain 35-44 urtekoak. Lanean dabilzanak euskera ikastera urreratzea gauza pozgarria da, orrek esan gura dau benetako zaletasuna daukela, eta euskera geiago jakitea be txalogarria da, asko jakinda be izkuntza oso-osoa ez dalako iñoz menperatzen. Tamalgarria zenbakia urritu izatea da.

## Lurraldeak

115 euskaltegi dira guztiz eta ia erdiak dira Bizkai'koak eta ia beste erdiak Gipuzkoa'koak. Araba'koak %12 dira eta len baiño iru euskaltegi gitxiago dagoz. Itxura baten Araba'n orreik baiño geiago dirala dirudi, baiña datuak orreik dira.

## Ikastegietan

Jakingarri orreitan ez da agertzen beste jakingarri au: Eskoletan eta ikastoletan geienak dirala D erduan izena emoten dabenak, euskerea bera ta gaiak euskeraz ikasteko itxaropenaz. Ori be itxaropen aundia da, baiña ikastegian asten dan euskera tze ori gero etxean eta kalean erabilten ez ba'da, erreiz galtzen da.

Zer edo zer pozgarria dago or baiña zalantza be bai.

## Gaurko egoerea

Iñoz sartu bear izan dogu euskaldunen taldeetara, batez be "Konekta zaitetz" ikastarora eta geienak abedetu edo alfabetatugabeak dirala ikusi dogu.

Orrek ituntasun edo tristetasun aundia emon dausku, baiña zori txarrez, erderaz be antzeko zerbait jazoten da.

## Idazleak

Ez da arritzekoa giroa olakoa izanik, gure aldizkarietan idazteko idazle gitxi aurkitzea. Zarrak orretan gogotsuak izan dira baiña gaurko gazteen artean ez dago idazteko zaletasunik, eta irakurteko be ez, bear ba'da.

Aldizkariak argitaratzen doguz, liburuak be irarten dira, baiña ez dago itxaropen geiegirik gazteak euskera idatziaren alde berbea emoten ez daben artean.

## Bilbao euskalduntzen

Gure aurreko Euskerazaleak Bilbao'ko alkarte au sortu eben eta millak izan dira alkarte onen irakastaldietara urreratu diranak. Lenago baiño gitxiago gaur.

Arein amesa Bilbao euskalduntzea izan zan eta ez dogu lortu baiña alegiña egin dogu eta ori da balio dauana.

## Aurrera!

Agertu dogun ikuspeagia ez da baiezkorra: Ikastegietan ikasten eta geienak izena emoten dabe D erduan, oraindiño be gure euskaltegietan dabilzanak asko dira, baiña Bilbao eta ibai-alde biak euskalduntzea gaitxa da, euskaldunak abedetzea edo alfabetatzea be ez da erreza, baiña dei batzuk egin dagidazan amaitzeko:

- Euskaldun guztiok alfabetatu, abedetu zaitetze!
- Euskera ez dakizuenok, ikasi egizue!
- Al dozuenok idatzi egizue! ZER aldizkariak pozik artuko zaitue!

**Olazar'tar Martin'ek**

# TOKI-IZENAK DIRALA-TA

INIAKI MARTIARTU, BAKIO'KO ADISKIDEARI

## ADISKIDE:

“Deia” izparringian irakurri dot “Bakio eta galipota” zure idaz-lan-txua eta zure zalantza mingarria da, udalariak erdeldundu diralako eta leku-izenak be euren erara erabiltzen dabezelako, izen jatorrak erabilli barik, eta albistari edo kazetariak be inguruko izen jatorrak zeintzuk diran arduratu bagerik, edozelan idatzi edo deiturak erabiltzen dabezelako.

Izen-jatorra da AXKADA, bai ATXAKADA dagoana eta kitu.

Bakio'ko leku-izenak oso-osoan euskaldunak dira. Orrexegaitik, adiskide, Bakio'ko ordartzearen izena be benetako izen zarra da, aspaldion izen ori emon ez arren Areaga deituta. Ondarreaga zala bere lenagoko izena agertu nai dautzut.

Dakizun lez, San Pelaio'n Urgitxi baserria egon zan eta nire aurretiko guraso zarrak angoak ziran eta euren jabetzako agiri baten agertuten da izen au: “Ondarreaga-ondoko soloa”. Gero nor egin zan jabe ez

dakigu. Baita nire aita be itxastar egin zan eta kito.

Gure aitaren ezpanetatik egundo be ez zan entzun “Area”, beti “ondarra”. Baita Bermeo'n be ba-egoan Ondarburu Errota, gero Atela esan jakona.

Ez dakit “ondarra” izena zergaitik galdu dan, Uribe-bazterra izan bear leuke orain Uribe-Kosta esaten jakonak be.

Euskaldunok alegindu gaitezkan geure lekuko izenak erabiltzen eta ez dakianari irakasten, batez be orain irrati eta irrati-erakustetik euskalduntzat dagozan “berba-lapikoak” uste daben astakeriak eta erdelkeriak erabilliaz, jakintuntzat eta euskalduntzat azaltzen dirala.

Bai, ona izango litzake Euskaltzaindian dagozanak arduratuko balitzakez, baiña euren eguneroko opilla daukienez, piperrik be ez dira aleginduten euskereagatik.

Orri berau artuaz beste au esan bear dautzut: “Giza-Izti” edo “gizizti” itza barritzak daukala diño e Atu-

txa'tar Paul'ek eta Olazar'tar Martin'ek, itzulpen gaian. Ba, esan bear dautzuet bioi Bermeo'n Arane auzotegian etxe baten izena dala “Gizizti”, nire aitari entzuna gaiñera etxe orretako gizona jakitun aundia zala eta beti egoten zirala gazteak domeketan eta olako egunetan gizon orren gauzak entzuteko pozik, alan dala naiz olan dala.

Euskereak len be erabilli izan ditu izen jakintsuak, orregaitik “Gizizti” edo “Giza-Izti” (Antropolojia) Muxika jaunak idatziriko iztegian ederto agertuten da berba edo itz ori, orregaitik diñot ba “2000mila ELKAR” eta beste “sasiakintsuok” euskereari españera sartzen aleginduten dirala, euskerearen maitasuna non daukien “berbalapiko” orreik ez dakielako, doazen bidean ezin ulertuta gelditu nazelako.

Geiago barik, agur. Urrengo batera arte, Euskerazaleak Alkarteko guttiori biotzez.

**ETXEBARRIATAR'tar Isidor'ek**

## MEDEBALDE ETA JUAN LUIS ADISKIDEARI

Goikoetxea ta Arrieta'tar Juan Luis antxiñako adiskidea dot, berau eta beronen etxeokak be bai. Eta Mendebalde izena daroan eta Alfontso Irigoien irasle izan eban taldearen arduradun da. Benetan Bizkaieraren alde, naizta atxeagaz izan. Ez nintzan ainbeste fidatuko Alfontso Irigoien'egaz, baiña uste dot Juan Luis adiskideak urak errotara eroango dauzala.

Juan Luis adiskideak Maixu-lana egin dau eta Ikastetxe Nagusian aurkeztu. Uste dot euskeraz egingo ebalda, baiña ez dakit. Idazpurua beintzat euskeraz dago: “Dakigunetik ez dakigunera euskal diglosia irazian”.

Bizkaierera ala batua da arazoa eta bein bizkaierera eta beste bein batua erabilli bear dirala ulertu dot DEIA'n irakurri dodan albistean. Eta irakaskintzan ezagunetik ez-ezagunera joatea dala diño bidea, teorian beintzat. Eta praktikan? Etxeko euskaldunak eta ikastolakoak dagoz aurrez aurre.

Ez daukat nik arazo au iñoz konponduko dan itxaropenik. Zelako indarra dauken legeak eta legetiko bideak

eta ze makal aurkitzen diran berbalariaren eskubideak! Beti esan dot nik, eta ikusi atzokoa ez dan Bilbao'ko Antropoloji-astean idatzi nebana, lenengo umeak daroan euskerea bera landu bear dala. Eta onetan batera datorrela dirudi Juan Luis adiskidea. Eta geroago, bear ba'da, baturantza jo.

Baiña nork ipiñiko dautso katuari txiliña, kaskabela? Irakasle guztiak batuan oituta dagoz, Jaurlaritzak batua baiño besterik ez dau ikusten, telebistan ez da iñoz Bizkaieraz egiten, naizta iparralderako “Orena” ekiñaldia sortu. Zer daukagu ba bizkaitarrok gure euskerea ainbeste gorrotatzeko? Ez ete gara gitxienez euskaldunik erdiak bizkaieraz berba egiten dogunok?

Noiz aldatuko eta da lege ori?

Biotzez agur, Juan Luis, eta zuk ekin. Eta atxea zer? Au kentzea errezagoa da, oraintsu telebista'n esan neban lez, ez da ezer be ikasi eta irakatsi bear, kendu eta kito! Dana askoz errezagot!

**Olazar'tar Martin'ek**

# BERTSO BARRIAK

Sinismen pozak ekarri gaitu  
Madalengo eleizara,  
egi egitan maitagarri dan  
zelai buru onetara,  
urterik urte, emen, daukagu  
ama on baten gizara,  
gure otoiak goratuteko  
Aita onaren aurrera.

Gure arbaso zoragarriak  
egiz, maite eben lurrian,  
zeru ta lurra egin zituan  
Jainko Altsuak bizian,  
otoi ederrak egin ebezan  
ermitatxo ederrian,  
maitasun garrez apaindurikan  
biotza sinismenian.

Zorioneko eginbidea  
ederra ederrenetan,  
Jainko Altsuaz alkartutea  
geroko itxaropenetan,  
amaigabeko aldia dator  
ortzi goitikan barrenetana  
au da zoria asmetan dana  
Aitaren etxe onetan.

## Goietako plazaren bedeinkapena

Jaungoiko Jaun Guztiz Altsua.  
Goietako plaza au bedeinkatu egizu,  
ta emen, osasun, onoiemen, apaltasuna,  
ontasuna, Jaungoiko Seme ta  
Gogo Deunarenganako esker ona  
izan daitezela ta bedeinkapen onek  
toki ontan ta emen, dabilzanengan  
iraun dagiala orain eta beti.

Mungiar anai zoragarriak  
emen, naz zuen artean,  
gogo ta gorputz oso osorik  
Mungiaren biotzean,  
erri eder bat ikusi neban  
nere begien aurrean,  
geroztik, beti, maite izan dot  
egiaren omenean.

Jendetz ederra ikusten nago  
begi biekaz bizirik,  
plazea eder, baserri zabal  
biotza lilluraturik,  
egi egitan esan bear dot  
zer da gauz bikaiñagorik,  
danen artean alkartasuna  
maitasunez indarturik.

Danok batera otoi egiten  
etorri gara plazara,  
toki onentzat gura Aitari  
bedeinkapen eskatzera,  
egunik egun, urterik urte  
doala, beti, aurrera,  
anaitasunez indarturikan  
Aita onenaz batera.

## Mungian zear

Bide zabal dagoz  
lurrean mendi aundien artean  
egi egitan, maitagarri da  
lurra gizonen menpean,  
zuretako da lautada dana  
bizitz onen bitartean,  
bene-benetan, maite dozu-ta  
zelai orleia aurrean.

Gora Mungiko kristau leialak  
onena aukeraturik,  
Aita on bera begira dago  
biotz osoaz zabalik,  
zuen bizia maite dau gogoz  
iñoz aspertu bagarik,  
bizitz onena, beti, opaka  
seme-alabei gogotik.

Goitik beraiño eder zakusdaz  
ene Mungia maitia,  
solo ta mendi, arkaitz tontorrek  
dana ametsen kabia,  
arto ta gari emon zenduzan  
gizonentzat janaria,  
seme-alabak zuri eskarrez  
onduten eben bizia.

Aurrera Mungi sinesteduna,  
zuentzat da zerua,  
jarrai otoika, ona egiñaz  
erritarroi alkartuta,  
anaiari on, Jaunari otoi,  
ondoren dator saria,  
argiz ta pozez bete-beterik  
zeru goiko erreñuan.

Arkaitz ta gizon ezin bardindu  
bizitzaren inguruan,  
arria illun, gizona argi  
agertzen dira munduan,  
lur onetako seme-alabak  
zurki, dabilnaz jokuan,  
gauz ederrena ederren legez  
artzeko urdin zeruan.

**Paulin**



ALDIZKARI ONEK  
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN  
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

---



---

# ABIZENAK

---



---

**Garzia:** Asieran Naparroako erregeen etxean izena zan eta gero, abizen lez zabaldu da mundu guztira.

Jatorriz, “Artza” da, “jartzea”. 1546n. urtean agertzen da Naparroako epaitegietan.

\*\*\*

**Gardezabal:** Laudion agertzen da. Bilbaon 1673.

“Garde” Erronkaritik dator eta izan leiteke arte-lekua. “-zabal” argi dago.

\*\*\*

**Gardoki:** Larrabetzun eta Bilbaon agertu da eta karduak dagozan tokia esan nai dau. 1791 ikusten da.

\*\*\*

**Garibai:** Oñate-ondoan auzo bat eta an agertzen da abizen au 1323n. urtean.

Jartoria “Garo-ibai”, ira artean doan ibaia.

\*\*\*

**Garitano:** “Garo” irea da eta “-tano” toki-atzizkia. Bergaran agertzen da 1491n. urtean.

\*\*\*

**Garitaonandia:** Zaldibarren torre-etxea. “Garita” eta “Onandia” dira itz-zatiak.

\*\*\*

**Garmendia:** Gipuzkoatik Zaldibarrera etoria. Gero Ameriketara.

“Garo” irea dan ezkerro, iraz beterik dagon mendia litzake. 1632n. urtean agertzen da, Jerusalemgo Talde batera sartzeko.

\*\*\*

**Gernika:** “Arno” sasia da, “G-” gero ezarria eta “-ika” toki atzizkia.. Alkantaran 1649.

\*\*\*

**Gorostidi:** Gorosti asko dagoan lekua. Gipuzkoatik etoria da.

\*\*\*

**Garro:** Izan leiteke garra, sua, dagon lekua edo “arro” aldapea. “G-” gerro ezarria da. 1589.

\*\*\*

**Gaztanbide:** Gaztaña-landarak dagozen bidea. Sara 1609.

\*\*\*

**Gatika:** “G-” gero ezarria, “-ati-” “arti” edo “arte”, eta “ka” toki- atzizkia.

\*\*\*

**Gazaga:** Leniz’ko antxiñako gatz-iturrian, Zaldibar’en etxea, Mungian be bai. Gatza dagon lekua.

\*\*\*

**Gaztañaga:** Gipuzkoakoa da. Gaztaña-landarak dagozen lekua. Seguran bizi zan bat: 1398.

**Gaztelu:** Erderazko “castillo”. Gipuzkoatik urten eta asko zabaldu da. Oñaten 1704.

\*\*\*

**Goiburu:** Zumaian iru etxe. Goikoaren gorengo zatia da. Bilbao 1823.

\*\*\*

**Goikoetxea:** Euskalerra osoan zabal. Goian dagon etxea esan gura dau.

Alegi 1652. “Goiko” da zarragoa agirietan: Elorrio 1575, Oñate 1388.

\*\*\*

**Goikolea:** Bizkaian dago, Larrabetzun asita eta Goiko burdin-ola esan nai dau. Bilbao 1769.

\*\*\*

**Goikouria:** Arratian sortu da. 1728. Ez dauka zer-ikusirik “uri” erriagaz, emen “uri” mendi-aldapa da.

\*\*\*

**Goiri:** Lezaman asita, Arrigorriaga, Zamudio, Gamiz... “Goiko iria” esan nai da, goiko aldapa. 1651. Bilbaon. 1522.

\*\*\*

**Goiriena:** Mungian dago geien eta Goiri abizena daukaren etxea esan nai dau. 1743n. urtean agertzen da.

\*\*\*

**Goitia:** Euskalerra osoan zabaldua. Aretxabaletan 1625. Nabas de Tolosan 1212.

\*\*\*

**Goitiso:** Gautegiz’en XII gizardian.

Goi-aldean dagon soloa eta onen barruan dan etxea.

\*\*\*

**Goienetxea:** Larrabetzun dago etxe au. Baztan’en eta Zizen be badago. Bermeon be bai.

Arlo baten goiena dan etxea. 1777.

\*\*\*

**Golzarri:** Len Gorozarri. 1625. Gorostiak dagozen basoa: Sarri. Aramaiona 1625.

\*\*\*

**Gorozpe:** Gorostiaren azpian dagon etxea. Urretxu 1643.

\*\*\*

**Goroziaga:** Zeanurin. Goroziak dagozan lekua.

Navas de Tolosa 1212.

## OKENDO'TAR ANTONIO

Okendo'tar Antonio itxas-gizon trebea zan eta, bere lanbideko beste askok lez, laguntza aundia emon eban mundu barria aurkitu eta bideratu bear zan aldi aretan. Donostia'n jaioa dogu, 1577n. urtean eta Kai-kalean jaioa.

Bere aita Okendo'tar Migel, itxas-gizon ospetsua izan zan, gudarako itxas-ontzien kapitaiia Gipuzkoa osorako eta "Armada invencible" gudaakatu eban. 1600n. urtean urten zan lenengoz gure Antonio itxasora Mediterraneo'ko itxas-lapurren aurka burruka egiteko. Or asi eta arrezkero arduraz ikasten dauz itxasoko arazoak.

1605n. urtean Bizkai'ko guda-ontzien buru izendatu eban eta urte bi barru Kantabria'koen buru. Beronen ardurea Ameriketatik etozan ontziak itxas-lapurren ekinaldietan zaintzea zan. 1611n. urtean España-Barriko itxas-ontzidiaren buru dogu.

Euskaldun ontzigileen talde aundiak lagun ebazala, Pasaian gertatu eban ontzidi bat Atlantiko osoan ontziak zaintzeko. Erregearen aginduz 966 euskaldun batzen dauz, euskaldunak, orduan trebeenak eta ondoen ordainduak ziralak.

1614n. urtean Santiago'ren zaldun izendatu eban.

1613n. urtean ezkondu zan Lazkano'tar Maria'gaz.

Urrengo urtean Donostia'ra baztertu zan eta an egin eban lan aldun lez. Baiña urteagarrenean barrero itxasortu zan.

1623n. urtean Madrid'en daukagu eta bere etxean batzen dira ango euskaldunak eta Ameriketako arazoak eta orretan euskaldunak dauken zeregiñak aztertzen dabez.

1623n. urtean galeoien Jeneral izendatzen dabe baiña ontzidi txatar baten buru egin dabelako, denporea galdu baiño ez dau egiten Portobello'n eta zori txar barri bat etorri jaken: andik etxera datozela ontzia urperatu jaken eta amarrarik bat il ziran euren artetik. Ori dala-ta epaikari baten aurrera agertu bear izan eban eta onek asketsi egin eban.

1631n. urtean Olanda'ko Itsas-lapurren aurka izan ebazan borrokak. 32 ontziren aurka izan zan bat Margarieta Ugartearen eta Hans Pater Kapitaiak ontzirik onenak eta 2.000 gizon galdu ebazan eta Okendo'renak 250 gizon galdu ziran.

Gure Okendo geroago ta ospetsuago dogu eta ardura asko ta aundiak artzen dauz baiña 1649n. urtean, olandarren aurka orain be, gudaldia galdu eban eta kaira eldu zan austuta, aspertuta eta zaurituta... Andik laster, 1640n. urtean il zan.

### DOMINGO MZ. DE IRALA

1509. urtean Bergara'n jaioa da eta orregaitik esaten etsoen Bergara kapitaiia. 1536n. urtean, La Plata'ren

billa joiala, Paraguai ibaia aurkitu eban eta Salazar eta Mendoza lagun ebazala Asuncion irasi eban 1537n. urteko dagonillaren 15n. egunean. Salazar bere laguna il egin eban inditarrak 1538. urtean. Erregearen agindua artu eban euren buru izango dana aukeratzeko eskubidea emoten eutsela eta gudariak Irala aukeratu eban eta or asten da 17 urterako izango dan Irala'ren agintaritza onuragarria. Aldi baten Albar Nuñez Cabeza de Vaca etorri zan Erregeak bialduta euskaldun batzuk lagun ebazala eta jaurlari izendatu eban, baiña Irala lagun ebal. Inditarrak matxinada sortu eban Cabeza de Vaca'k gogor artzen ebazalako, ez bardintasunaz Irala'k lez. Oneik kendu egin eban jaurlaria eta beronen lekuan Irala ezarri.

Irala 1556n. urtean il zan apendizitis goisoagaz. Bederatzi seme-alaba aintzat artu ebazan, endaz nastatuak, eta oneik bere lana jarraitu eban.

Beti esan da Irala zala Paraguai'ren eta Asuncion uriaren irasle bear ba'da inditarrakaz ondo alkartu zalako, zuzena ta gizatia izan zalako eta Arjentina, Uruguai eta beste laterri batzuk sortzeko be bideak zabaldu ebazan.

### AGIRRE'TAR JOSE ANTONIO TA JAURKIDEAK

Erbesteraturik geien ameriketara joan zan aldia, Franco'ren guda-ostea izan zan. Eta erbesteratuen artean gure lenengo Lendakaria eta bere jaurkideak egozan.

Gaztetan irakurri neban Lendakari onek idatzi eban liburu irakurgarria: "De Gernika a Nueva York pasando por Berlín". Gau ta egun aspertu barik irakurri neban gure lendakariaren odisea. 1937n. urtetik 1947n.era 5.000 euskaldun eldu ziran Ameriketara.

Orduko Eusko Jaurlaritza be antxe bizi izan zan 1941n. urtetik 1946n.era arte.

1941n. urteko udaldian eldu zan lenengo Lendakaria Rio de Janeiro'ra eta Uruguai eta Arjentina igaro ondoren, azkenean Nueva York'en geratu zan. Apur bat geroago eldu ziran ara beste jaurkide batzuk: Monzon, Nardiz, Aznar eta Toyos.

Lan asko egin eban Lendakariak an egon zan urteetan: Euskal-alkarteak batu, euskal-jakintza indartu, kristau demokrazia indartu eta, batez be, Munduko II gudan ebiltzan Alkartuak lagunatzeko bideak bateratu.

OLAZAR'tar Martin'ek

## 13.- AMAIRUGARREN SALMOA: MARIA ETA JOSE EZKON BERRIAK

1

Oitura zuen ebreetarrak  
ezkon berri egunetan  
itz egitea nola jokatu  
berak zituen gauzetan.  
Jose senarrak Mariari au  
esana zion benetan:  
"Beartsua naiz, nik zure naia  
Egingo det gauz danetan".

2

Mariak apal erantzun zion  
oni entzun zionean:  
"Zu zera nere jauna ta nago  
zu zerbitu barrean;

uzten baidazu esango dizut  
nola nai dedan danean".  
"Nere andrea, emen naukazu  
zurea entzun naiean".

3

Aingeruari eskatu zien  
itz egiten laguntzeko,  
lenengo aldiz gizon batekin  
bakarrik itz egiteko,  
Agertu ziran milla aingeru  
lagunak ugaritzeko,  
esaten dio: "Nago Jaunari  
esker asko emateko".

4

Txikitatikan eskeiñi nintzan  
beti birjin bizitzeko,  
nai dedana da nere boto au  
betetzen zuk laguntzeko.  
Beste danean emen naukazu  
mende zuri serbitzeko,  
senar nere, baldin bazaude  
au neri aprobatzeko".

5

"Nere andrea, zure esana  
da neretzat atsegiña,  
amabi urte Nituanian  
boto au daukat egiña.  
Agintzen dizut: zuri laguntzen  
egingo det alegiña,  
eta zuk ere Jaunaren urren  
ez iñor maite ni aiña".

6

Jaunak ipiñi zion Joseri  
maitasuna berrituta,  
deseo txarrik izan etzezan  
oso garbi goratuta.  
Andre Mariak itz egitean  
jartzen zan oso poztuta,  
señar Joseri eskeiñi zion  
bizitzea maitatuta.

7

Utzi zizkien ontasun asko  
gurasuak Mariari,  
jarri zituen iru partetan:  
lenengoa Elizari;  
ta bigarrena partitu zien  
pobre bartsuenari,  
irugarrena Mariak jarri  
zion Jose senarrari.

8

Erregiña zan eta beretzat  
zan aukeratu zuana  
serbitutzea Joseri eta  
etxe barruan zan lana.  
Josek gazterik arotzen lana  
zan egiten zakiana,  
beartsuari lagundutzeko  
zan egiten zijuana.

Jaun-goi - ko At - ta mai - te zai -  
tu - gu ze - ru lu - ren E - gi - be - a Jain - ko  
se - me - a, mai - te zai - tu - gu gu - ti -  
on Sa - ba - dai - lle - a Jaun Es - pi - ri - tu San - tu - a  
ze - ra a - lai - ta - zu - e - mai - lle - a gu - re  
a - ni - man Se - na - rri - ze - ra. po - za  
sor - toan lan - gi - lle - a



**(14) Amalagarren Salmoa: Jose eta Mariaren bizitza, sei illabete****1**

Andre Maria poztu egin zan  
Joseren lan egitetan,  
eta urrena dudatu zuen  
nor zan mendeko bietan.  
Josek nai zion serbitu baiña  
Mariak auzi onetan  
gizasemea zala burua  
agindutzeko gauzetan.

**2**

Auxe bakarrik eskatu zion  
Mariak senar Joseri:  
bere baimena ematen zion  
laguntzeko pobreari.  
Jose santuak emana zion  
baimena emazteari  
nai zuan eran lagundutzeko  
Jaunaren beartsuari.

**3**

Ezagaturik Jose santuak  
goi argiz ingurututa  
Mariak zeuzkan birtute asko  
ta zeguan arrituta.  
Beriro eman zizkan eskerrak  
Jaunari oso poztuta,  
merezi gabe zegoalako  
emazte on au artuta.

**4**

Jaunak biotzez esana zion:  
“Maria nere maitea,  
begira, nola naizen zuzena,  
nai det zuk erantzutea.  
Garbi ta santa bizi zaitezen  
Jose lagun izatea,  
bizi mendean bera poztuaz  
au nai nizun esatea”.

**5**

Erantzun zion: “Nere Jainkoa  
ain ona zera nerekin,  
arritzekoa egiten dezu  
erez ez naizen onekin.  
Lagun eidazu jarraitu zada  
zure poz geiagorekin,  
eta serbitu dezadan Jose  
zure naia danarekin”.

**6**

Au zan bizitza izan zuana  
Nazaretoko etxeak,

irailaren zortzi zanetik,  
senar emazte maiteak.  
Martxoak ogei ta bost artean  
ziran sei illabetak  
Jaunaren aintzan otoitz egiña  
goi maitasunez beteak.

**7**

Alguztidunak nai izan zua  
Maria preparatzea,  
beatzi egun falta zirala  
argituago jartzea.  
Mariak beti eskatzen zuan  
eskutuan bizitzea,  
etzedin izan naigebetua  
Jaunaren errukitzea.

**8**

Jauna pozikan geldituzten  
Mariari entzutean,  
eta gaiztoak ondutzen ziran  
arpegi au ikustean.  
Jose senarra serbitzen zuan  
alaitasunez betean,  
Alguztiduna abesten zua  
aingeruakin batean.

**(15) Amabostgarren Salmoa: Jainkoa Gizon egin zan****1**

Eldu zanean martxo illaren  
ogei eta bostgarrena,  
Andre Maria gau eta egun  
otoitz egiten zuana,  
santu Gabriel millakarekin  
Jaunak biraldu berena,  
izan nai zuan Jaunaren Ama  
eskatutzeroa baimena.

**2**

Birjiñak an aingeru ederra  
bat zan ikusitakoa,  
auspeztu nai zun, etzion utzi:  
bera zala mendekoa.  
Gabriek onek Mariari zan  
onela esanolakoa:  
“Jainkoak salba, graziaz bete  
zurekin Jaun betikoa”.

**3**

Bedeindatua zera Maria  
andre guztien artean”.  
Au esatean, zer ote zion  
jartzen du bildur betean.  
Goi-aingeruak: “Ez bildur izan

esan zion ikustean,  
orra, Maria, grazia argitu  
zendum Jainkoz batean.

**4**

Sortuko dezu seme bat eta  
ipiñi Jesus izena,  
au izango da Alguztidun  
seme deituko diena.  
Jaun da Jainkoak emango dio  
aulki Dabidek zuena,  
bere erreinua izango dagoi  
ta azkenik ez duena”.

**5**

Mariak auxe aingeruari  
esana zion orduan:  
“Nola gertatu leike gauza au  
birjin bizi az munduan?  
Gizasemerik ez ikutzeko  
nere itza eman nuan”.  
Santu Gabriel Mariak zeuko  
etxe barruan ondun.

**6**

Aingeruak au erantzun zion,  
“Jaun Espiritu Santua  
etorriko da zu izatera  
Alguztidunak arua;  
bere bitartez izango zera  
ama birjiñ gelditua,  
izango dezu santua seme,  
Jaunko-semea deitua.

**7**

Ara Isabel zuk lengusua  
bizi zan agor zartuta,  
eta seigarren illean dago  
Jaunak seme bat sortuta.  
Jaunarentzako gauza eziñik  
ezin leike agertuta”.  
Andre Mariak sinistu zuan  
gurekin errukituta.

**8**

Mariak esan zuan orduan  
apaltasunez onela:  
“Emen naukazu Jaunaren mendi  
serbitzaria naizela.  
Egin bedi, ba, neregana ori  
esan didazun bezela”.  
Ta aingeruak laga egin zuan  
Jauna gizondu zeila.

ALDALUR ETA  
IRURETAGOIENA 'tar JUSTIÑE  
LEKAIME KLARATARRA  
(GASTEIZ)

# EUSKALDUN, FEDEDUN

Leenago bai, euskaldunik geienak fededuan zireanean. Baia orain...

Nik neuk ez dakit gure errietan zer denganiño jazo dan. Guk geuk izan ez genduzan erreztasunak eta aukerak daukez ikasketak egiteko oraingo gazteak eta, geienak dira asko ikasiak eta landuak, baia altxorrik onena galdu egin dabe: Siñismena, eta sendietako bakezko bizikerea lorrindu: Siñismenean eta bizikeran zoriontsu bizi zirenean guraso asko zetara jokatu ez dakiela jarri dabez. Tamalgarria!

Besteak beste, geure erriari buruz diardut. Gure gaztealdian gure erriko gizasemeak, bai emakume eta bai gizon, zintzoak eta fededunak zirean eta orain sortu izan dakiguzan naaste ta lorrinkeria barik bizi izan gintzazan, siñismenez eta Jainkoaganeko maitetasunez.

Izagirre'tar Juan geure erriko semea zan abadeak esaten eban, abadetzarako ikasketak egiten Gazteiz'en egoanean, Martin Aitari entzun ei-eutsan, Araba'ko erri baten: "En Bizkaia hay un pueblo, Aiangiz, que no pecó en Adan" Martin Aba, Larrea'ko karmeldarra, ser-

moalari entzutetsua zan. Sarri izaten genduan gure artean eta ondo ezagututen ebazan gure erriko eliztarrak. Euskal-idazlea be ba-genduan: "Egi biribillak" idazten ebazan Karmelgo argia'n Arratia'ko bere euskera ederean.

Olakoxe fededun zintzoak zirean, ba, orduko zar eta gazteak. Bai meztan eta baita arratsaldeko elizkizunetan bete-beterik izaten genduan gure elizea. Orain barriz, gaterik ez umerik ez da elizkizunetan agertuten.

Aittetugarriak zirean areik, gogoetan betirako zirrada ezarri euskuen Maiatz'eko loreto abestiak eta abar, bizitza guztirako siñismenaren indargarri irauten dauskuen gomutagarriak.

Orduko abadeak esaten ebenez, gabetan Agurtza deuna otoitz egiten etzan etxerik ez ei-egoan gure errian. Eta orain... Ai orain, leen errosarioak eskegita izaten zirean eskatzetako ormetan, gure gogoeri, batez bere gazte ta umeeri kalte egiten diarduen irratikuskiñak ikusten dira.

Auxe bai ba-dala tamalgarria bizen kaltegarria! Fedea galdu daiteanean, lotsabakokeria, kuntzekeria,

berbakera baldrasa, sasi-eskontzak, bizi-alarguntzak eta abar eta abar sortuten dira. Zoritxar auxe jazo da, ba gure errietan.

Iratzeder beneditar olerkari gogokoiari itaundu neutsan bein, zer jazo ekioen arei, Prantzia'ko abade langilleeri eta, berba gitxitean erantzun austan: "otoitzik etzuten egiten eta..." Otoitzik egin ezean ez dago, ba, siñismenean zintzo jarraitzerik. Eta leenagoko aldean gitxik egiten dabe otoitz orain.

Leenagoko abadeak, pekatua ez dala, pekatuak bidea izan daiteken jokabidea bera be gogor salatuten eben. Oraingoeri ez dautsegu entzuten, euren berbaldietan, irratikuskiñak gizartean dagiskuzan kalteak diralata ezer esaten. Alperrekoa dala uste ete-dabe, ba, edo itsasoan goldaketan jardutea dala oraingo gizadiari olakoak adiraztea?

"Egia, askoren mingarria" da esakerea, ba-daiteke lerro oneik norbaitzuk minberatu izatea be. Baia, auxe dogu egia eta egiari ezin geikeoz entzumenak estaldu.

**Aurre-Apraiz'tar Balendin'ek**

## TRABUDUA'TAR POLIXENE

Zelai artean autaturiko izena da Trabudua, landara orlei, bola urdiñak sortzen ditun izakia, bene benetan esan bear da eder dala itxuria, inguru danak alaituteko irudi bizi bizia.

Azi eder bat erein zenduan, egiz, egokitasunez, erri on baten bizitz argia urrezko edertasunez, gogo onenaz artzen eutzuen zure jakintza biotzez,

gora euzkotar arima ona, erritar onen eskarrez.

Aldi aretan ibili ziran lagunak Euskalerrian erririk erri itza zabaltzen egiaren izenian, bata lez beste jatorrak ziran gizontasun onenian, euzko erria goraldugaz berari zor jakonian. Ordu-ezkero maitasun aundiz erria astu ezinik, gogo onenaz aurkitzen zara sendiaz inguratutik,

gora ta gora esaten dozu euzko arnasaz beterik, Jainko Altsuak berea daben erri ona maitaturik.

Oi, ze jendetza agurgarria bizi zan Euskalerrian, plazarik plaza joaten ziran egiaren izenian, erri bizia zabaltzen zendun euzkotar itz jatorrian eta euskaldun seme-alabak pozik, entzuten aurrian.

**PAULIN**

# KAROLINJIOEN ETA OTONEN ALDIA (ERROMANIKU-AURREA)

Basatiak, Eleizearen bidez, artu eben erromatarren jakintza eta alkartasunera eroan ebazan Barri Ona. Laster asi ziran Erroma'koaren antzeko aginterriak sortzen. Lenengo karolinjioak eta gero Oton'ak.

VIII gizaldiaren azkenetan sortu zan Karlomagno'ren aginterria, lurgintza oiñarri dauala eta itxasotik urrin, salerosketa barik, eurentzat lurraren frutua ateratzen ebela.

Basatien jakintza oso laburra zan oraindiño eta Karlomagno bera be olako egoerearen frutua zan, errege aundia baiña irakurtzen eta idazten jakin barik. Baiña berak sortu eta indartu eban jakintza, Eleizeagaz bat eginda: parroki eskolak, lekaide-eskolak, gotzain-eskolak eta Akisgran'en Ikastetxe Nagusi arrigarria.

Ikastetxe nagusi onetan, Sebilla'ko San Isidoro'k egin eban antzera, mailla bi irakasten ziran: Trivium (gramatika, retorika ta dialektika) eta quadrivium (aritmetika, geometria, musika ta astronomia). Laguntzaille izan ziran San Beda, San Isidoro, Paulo diakonoa, Teodulfo, Eginardo edeslaria, Rabano Mauro, Eskoto Eriujena, Alkuino...

Baiña goazen iturrira: Galietan Pipino Txikia agertu zan jauntxuen artean nagusi eta erregetza beraganatu eban, feudodun jauntxuak inguruan ebazala. Aldi orretan sortaldeko Kaiser III Leon Isaurikoa zan, irudiak apurtu ebazana, eta II Esteban Aita Santuagandik banandu egin zan, orregaitik Aita Santua Pipino Txikiagara urreratu zan eta berau koroatu eban frankoen errege. Orrelan asi zan Karolinjioen Errege-etxe barria, erregerik ezagunena Pipino'ren semea zan Karlomagno dala eta or asi ziran Aita Santuaren laterriak.

Karlomagno 768n. urtean egin zan errege eta 800n. urtean Leon IX aitasantuak sarkaldeko Kaiser koroatu eban. Ori sortaldekoak oso txartu artu eben eta eleizea zatitzeko oiñarri bat izan zan.


Beti agiri ziran inguruan feudoetako jauntxuak. Ludobiko, Karlomagnoaren semea erregetazara eldu zanean (814-840) Verdun'eko itunean iru zati egin eban erreñua: Frankoak Karlos'eri, Lotario'ri erdialdea eta jermanoek Luis'eri.

Aldi orretan erria errukarri bizi zan. IX-XI gizaldiak dira. Jauntxuak ziran izerdi zurrupatzaille eta errian ez egoan ezelako jakintzarik. Jauntxuakaz batera zoriotsu

bizi ziran euren antzeko ziran gotzaiñak eta ez ain txarto onein eta erriaren bitartean egozan lekaideak. Errietako abadeak, ostera erritarren mailla errukarrian bizi ziran, jopuen antzera.

**LEKAIDEAK:** Begiratu dagiegun ain garrantzi aundia dauken lekaideai. Oneik feudodun-gotzain eta erriaren bitartean egozan, talde aundi eta indartsuetan. 800 lekaide eukazan monastegia ez zan aundia: Erdian eleizea ta liburutegia, gero lekaideak lan-taldeetan euren abatagaz eta inguruan orma sendoa. Lekaide-etxe osoaren buru Artximandrita zan.

Lenagoko lekaideak be badagoz baiña Nursia'ko Benito'ren Araudiak artu eban indar aundia. Onek sortaldetik, San Pakomio ta San Basilio biterteko zira-la ekarri eban bizikera au eta Kasino mendian emon eban asierea. VI-VIII gizaldien artean lan aundia egin eben Europa osora zabalduta. IX gizaldian lekaideak jopu eta esklaboak daukez eta jokabide okerrera jausi ziran.



*Oton'darren aldiko abat-etxea.*

Egoera orretan egozala, biziera barri bat agertu zan Kluny deritxon lekuan. Lekaide barri oneik, Kluni'tarrak be, geroago jokabide txarra artu eben indartsuegi be baziran eta: 1049n. urtean San Hugo Kluni'ko abatak 2000 lekaide-etxe daukaz menpean eta


## EDERTIA

Aita Santua'ri lagundu eutson Kaiser'en aurka bein baiño sarriago.

XI gizaldian San Bernardo'k bideratu ebazan Kluni'tarrak orretarako Zister sortuta. Izan ziran beste Barritzaille batzuk be, esaterako kamaldulatarrak, baiña zister izan zan erriaren alde geien lan egin ebana.

Zelan bizi ziran lekaideak? Klunitarrak ikasten eta antxiñako jakintza zabaltzen, bide batez otoiz asko eginda. Zister'tarrak lurgintza eta esku-lanean, "ora eta labora" agindua betetuz. Baiña danetik egiten eben guztiak. Euren artean sortu zan aldi aretako filosofia, edestia, lirika, epika eta abar. Erregegaiak be euren artean ikasten eben. Ori orrelan izan zan, esaterako, Leire'n eta Kordiba'ko Gregorio gotzaiña etorri jaken ikertzera. Gero onek eskutiz bat egin eutsen eurak goratzen, asko eta onak ziralako eta jakintza arloan sendo egozalako, batez euren liburutegi ederra goratzen dau.

Errien sorreran dagozan epika-olerkiak, erritarrak dirala esaten da baiña lekaideen artean sortuak dira, naizta gero juglarrak izan zabaldu ebezanak: Nibelungos, Chanson de Rolan, Mio Zid, Kantares de jesta...



*Akisgran'eko Karlomagno'ren etxe ederrean eleizea.*

**Eder-lanak:** Aldi oneitako edertia erromaniku aurrekoa da.


Karlomagno'k Akisgran'en egin eban etxe ederra, Bizantzio'tik etxegiñak eta Rabena'tik etxe-zatiak ekarrita. Irudigintzan be lan ederrak egin ebazan onein artean Karlomagno zaldi-gaiñean eta lan asko bitxie-

tan, liburuteko iruditxuetan eta abar. Oton'darrak etxegintza ederra dauke baita miniaturak eta bitxiak be.



*Karlomagno zaldi-gaiñean (Erromaniko-aurrea).*

Aldi onetan Espaiña'n Asturias'ko arte Ramiro'tarra eta mozarabeena dagoz.



*Kuni'ko abat-etxea: Emen asi zan lekaideen biziera barri bat.*

**Olazar'tar Martin'ek**

# OTO BAIKOR ETA OPTIMISTA

Oto baikor utsa da.

Ez dauz gauzak alderantzitik begiratzen. Zertarako alderantziz begiratu?

Alde onetik begiratuta be, naiko lan dago bizimoduan, arranok ez baituk!

Eibar´en biar egite eban aldi aretan.

Lantegi batean.

Astelenetik zapaturarte.

Zapatu gaberarte.

Ez zan oraindik “sábado inglesa” asmatu, arratsaldean festa artzeko.

Astelenero goizeko trena artun eta an doa aste osoa keartean pasatzera, bere erritik kanpora.

Astelena eta biramona alkarrekin doaz...

Astelen goizean, zazpi t´erdiko trena artzean, onela diotza Pototo´k:

- Oto, bixamonik, bai?

- Ba, apurtxo bat, Bañan, zer...? Etzi asteaizkena, “jodida la semana”.

## POTOTO AFRIKA´N EIZTARI

Pototo Africa´n izana dogu.

Eizean.

Jakiña, Euskalerrri´ko mendietan ez da lapurtxoririk be gelditzen.

Paseko kalandriaren bat edo beste... Bestela, zer? Goiko laño-artean uso-taldetxo bakanen bat?

Ezer be ez.

Pototo gizon prestua ez da kalandriekin konformatzen. Gutxienez leoiak bear dauz.

Leoi billa Afrika-alderuntz jo dau. An bai, kaza ugari, leoiak eze, elefanteak be bai...

Eizetik etorri zanean, Oto agertu zitzaion etxean. Barrura sartundakoan, an ikusi eban, maai-aurrean leoi-narru eder aundi bat:

- Eize ederra egin dok Afrikalde orretan.

- Boo... Suerte apur bat be izan dogu.

- Bildurra emongo dau orrelako animal zarra aurrean ikusteak...

- Bai, ba... emoten dau.

- Arriskurik izan al dok?

- Ez dakit ondo... Burruka latza izan genduan alkarren artean: bere azala ala nere, bietako bat.

- Ba azal bezela, alfanbrotarako, ire azala ohea...

Oto gizarajoak ez zuan geiago itz egiteko astirik izan: Pototo´ren ukabilla bere buru gañera zetorrela ikusirik, anka korrika kalera. Kalean arnasa artu ebanean, onela esaten eutsan bere buruari:

- Zerk asarratu ote du orrela jartzeko?

## OTO TXARTELETAN

(Gure aurtzaroan be irauten eban oitura zaar orrek: Pazkotan mundu guztia joaten zan Jauna artzera eukaristian; baña, aurretik, Parrokoaren gana joan bear izaten zan Dotriña-examiña egitera. Ondoren Erretoreak emoten eban txartel bat jaunartzeko lanak egiteko. Orixe izaten zan “txarteleta”).

Oto mutil gaztea Garizuman, urteero bezela, Erreto-arearen etxera joan zan Dotriña examiña egitera, Pazko garaiko txartela jaso aal izateko.

Erretorea maai-atzean eserita.

Oto maai-aurrean zutunik, estu eta larri, txapela eskue-tan bueltaka.

- Ara, Oto, galdera errex au egingo diat: Noiz eta nun il zan Jesus?

Otok jira eta buelta txapelari; bañan Jesus´en eriotza-ren berririk ez eban bere buruan iñun topaten. Erretoreak bidali du etxera txartelik gabe.

Oto etxera eldu danean eta gertatutakoak amari agertu, amaren asarrea...! Laga danak sukalde baztarrean zeuden bezela, jantzi kalerako soñekoa eta or dijoa Erretore-etxera, pertza konpontzeko asmoetan:

- Erretore jauna, berorrek ez deutso nere semeari txartelik emon!

- Ez, andrea.
- Zergaitik ori?
- Nola emon, Jesukristo noiz eta nun il dan ez ba'daki?
- Ta, Jesukristo il al da? Nik beintzat gaxo zegoenik be ez nekien.

## MILLA PESETAKOA FALTA

Otok alguazil ikasten diardu.

Erriko festak, ganberroa ugari aldameneko errietatik sartzen da eta agintariak indarraren laguntza bear. Oto'ri laguntza ori alkate jaunak eskatu zion.

Erriko festetan azoka be izaten da.

Ba ebiltzen bai tratante eta bai ijito ugari.

Alako batean Oto'k ijitoa ikusten du tratante baten poltxatxo arrapatzen. Oska asi da:

- Entzun, motxaille...!

Ijitoa aurretik eta Oto atzetik... A zer korrika apostua egin eben biok erriko enparantzan...!

Oto ez da adimen argiko gizona, baña anakak ditu basauntzak baño ariñoago...

Berai motxaille batek korrika irabazi...?

Ez orixe!

Berreun pauso ematerako, elduta eukan ijitoa lepazamarretik. Biok arnas estuka:

- Zertara etorri az erri onetara?

- Astoa eroatera.

- Astoa eroatera eta lapurretan?

- Ba...

- Milla peseta dok lapurren multa.

- Ez dot bosteun besterik...

Errejistroa pasatu ondoren, ez eutson beste dirurik topa.

Problema latza eta korapillo eztua!

Oto'k bere buruari atz. Pentzakizunetan ebillen seña-lea. Baña, Oto'ri sekulan ez zaio argirik palta, bearrean arkitzen danean:

- Zoaz berrero azokara eta billatu beste basteunak.

## BEI EZKORRAK

Oto ta Pototo baserritar berriak ziran oraingoz.

Oto'k bere bizitza guztian ez zuan bei bat metro bate-ra ikusi. Errapea nun zuen ziur-ziur ez zuen jakingo. Pototo'k baserriak izan ebezan, baña maistarren eskuetan. Oietako aizkena berak eramatea erabaki du Oto'ren laguntzarekin.

Amar bei txuri-beltzak baebezen, beintzat. Jaten emoten aaztu egiten zitzairen noiz-beinka; esnea jeisterik, ori ez sekulan.

Oto ez zan sekulan baserri batean ibili; irakurtzen, ordea, ikasi eban eta liburutxo bat erosi zuan beiak nola jeisten ziran ikasteko: ontzi bat esnea jasotzeko eta aulkitxo bat bear ziran...

Urrengo goizean, ontzia esku batean eta aulkitxoa bes-tean, sartun da Oto kortan beiak jeisteko asmoetan... Bitarte orretan Pototo baratzean ebillen tomatei sulfatoa botatzen.

Oto ikulluan sartzearekin batera, asi ziran barru aretan marruak eta zaratak... Burruka gogorren bat sortu zala zirudien... Ango izkanbilla...!

Alako batean irten dau Oto'k kortatik kanpora, bere aulkitxoa eskutik zintzilik duela eta ezkerreko begia, berriz, more-more:

- Zer abil, Oto, barru orretan ainbeste izkanbilla atarateko?

- Bei oiekin ezin dot burutu!

- Zer, ba?

- Ezi gabeak dozak.

- Ezigabeak?

- Betizuak, orixe, betizuak. Begira bere begiari!

- Bai, bai, ederra artun dok begi orretan! Bañan, zer gertatu da?

- Betizu oiek ez ebela nai sillatxo onetan ezarri!!!

**Anes  
Deba. 1968.**

## AZKEN ESKUALDUNA (4N. SARIA)

Gerra-aurretik, Josetxo zan Erronkariko alaiena. Bazegozan beste erronkaritar batzuk baina eziren Josetxolakoak. Txikiteotan ibiltzea gustatzen jakon eta ederto baten ipinten eban bere txapela kalera irtetzeko. Arratsalde danatan egoten zan bolatokian bere lagunekaz berbetalditxo egin, eta esku bete berba bota-ostean amarrak inguruan itzultzen zan barriro etxera.

Bere arrebarekin bizi zan Erronkarin, oizkoak diran etxe txiki eta txukun batean.

Ni beti joaten nintzan Josetxoren errira oporretan eta ezustearen ondorioz ezagutu giñanetik beti nengoan bere etxean.

Euskaraz berbetan aparteko grazia eukon eta pasadizoak kontatzen be aparta zan, iñoiz ez dot ikusi kontatzaile obarik.

Il aurreko urtean bera gaztea izan zaneko pasarte lazgarri bat konta eustan:

“Gazte nintzelarik, niaurrek batere ez nakien erdara. Eskolan eta *katiximan* bateantsu abiatu nintzan. Denbora artan, eskolan *errients* eskualdun bat zen. Izenaz ez naiz orroitzen.

Arekin oraino bazoan ainbatean; bear orduan euskaraz mintzatzen baitzitzaukun. Etzitzautan ura ain arrotza iduritzen, eta erran dezaket laster ikasi nituela arekin ikasi bearrak.

Katixima aldiz, *serorek* egiten zaukuten euskaraz. An oraino obeki zoan. Alabainan, nik eskolan abiatu artean, ez nuen bein ere erdal itz bat entzun.

Gero iragan nintzan ttipien eskolatik eskola aundiagoratu, eta katixima ttipitik kaxima aundirat, leen komunionearen ondotik.

Or jaun ertora ginuen erakasle. Gure erria baiño iparralderat Uarriet-en seazki apez zena ain zuzen ere. Au ezagutu detenek badakite zein zen eginbidetsua eta bere ikasleentzat garratza. Bainan ni are ganat trankil joaiten nintzan, arek eman ikasgai zatiak osoki ikasten eta aren erakaspentak gogotik entzuten.

Eskola aundian aldiz, errient erdalduna ginuen, euskararen kontrakoa gaineratu, bertze aunitzen gisa. Aurra elgarrekin euskaraz mintzo auteman orduko, gaztigatzen gintuen; bainan gainerakoan etzen batere jaun ertora baino garratza-goa.

Zergatik nintzan beraz, katiximarat gogotik joaiten eta eskolarat bortxaz?

Niaurek eta gero konprenitu nuen. Jaun ertoraren eta ene artean bazen gauza bat aren karguaren eta ene eginbidearen

arteko korropiloa laxatzen zuena; ura zen gure izkuntza maitea.

Eskola ere euskaraz egin balaukate, ikasi bearrak ere ikasiko nituen nik ere.

Bidenabar erran dezadan gure jaun ertora euskaltzale ona zela; katiximarekin batean entsatzen zen guri euskararen ere erakusterat. Arek euskara garbia zuen maite, ez erderarekin naasia. Euskaltzaleen biltzarraren *manuz* erdaratik euskararat itzularazten ere ari izan zauku.

Orroit naiz bein nik irabazi nuela bolo sariketa ene errian. Ola ezarri zuen Eskualdunear (aldizkaria) gero ene adixkide izan bear zen Elizalde, zerbitzari apez zenak, ura izaiten baitzen gura lantxoer *jujari*:

1 euskaltzale  
aurten aiz irabazle!

Errientaren eta ene artean aldiz, erdal izkuntzak egiten zuen arresi ikaragarria. Etzen ez nuelakotz konprenitzen; bainan ez nuen deus ere egiten aren ikasteko. Ez nuen nai ene burua erdaraz mintzo aditu, eta erdaraz mintzo zelakotz eta euskara astio, nuen nik ere ene aldian gure errienta astiatu.

Geroztik zer pentsatu ote du, nitaz zer bait berri jakin badu?

Nik ez dut bein ere ikusi, bainan ez da emendik urrun bizi izana.

Zenbat aldiz pentsatzen ote nuen: denak eskualdunak izan bagina edo eskualdunik baizik ez balitz munduan!.

Argi da arrazista ttipi bat nintzala, gero sentimenduz aldatuko banintzan ere...

Errient ori-Dachari zuen izena- ainbertzetaraino nuen astiatu, ez baininduen geiago neork eskolarat moldatzen aal izan. Sasi eskola ere egin izan nuen artako doa.

Ameka urte inguruan utzi nituen alde bat eskolako alda-kiak.

Errienta gure etxean ibili zen aldi bat baino geiagotan, ni ait´amen bidez berriz bildu bearrez, baizik eta ikasteko aala banuela eta pena zela ain goizik eskola utz nezan. Bainan ene ait´amek etsitua zuten enekin eta ez ninduten giago bortxatu.

Gauza guti ikasirik galditu nintzan, bainan etzaut bein ere damutu. Gaur ere naiago dut, erdaldun jakintsu bat baino, eskualdun ezjakin bat naizen. Irakurtzen doi doa ikasi nuen, bainan orri esker aal izan dut munduko zer bait berri.

Orai engoitik ez daut eskolak eginen faltarik geiena; obeko nuke, eskola geiago baino, dakidanaren baliatzeko denbora.

## IPUIN-SARIKETA

Gainera jakin dezazun argatik aspaldidanik ez ditut ber-tze izkuntzak ere gutxiesten eta aitortzen dudala eien ikaste-ko bear ordua”.

Orra or Josetxok berberik berba kontatutako pasartea, bere azken istorioa. Momentu onetan bera lurperatuta dagoen lekuan nago. Bere ilarrian auxe irakur daiteke:

### JOSETXO MUSKILDA

1882-1962

Erronkariko azken eskualduna

Goian Bego

Josetxo joan da eta beragaz batera Erronkariko euskera, orregaitik jatorkidaz burura itaunok:

- Noiz arte jasan bear dogu gure ama euskeraren aurkako eraso?

- Au al da euskeraren etorkizuna?

- Zer egin bizirik iraun daian gure izkuntzak?

Berandu izan baino leen bakoitzak aurki daizala erantzunak.

*Orkatz*

### IZTEGITXOA:

- *Katixima:* Katezismoa.

- *Errients:* Emakumezko erri-irakaslea. Andereñoa.

- *Errient:* Gizonezko erri-irakaslea.

- *Serora:* Sakristana.

- *Manuz:* Aginduz. (Beti doa noren formaz lagundurik)  
-ren manuz.

- *Jujari:* Juez edo apailea.

**Asier Legarreta**

---

## GASTAROKO IZTU-LARRIAK

### (5N. SARIA)

---

Gaur egun iri azkotan, asteburu gauetz edo/ta erriko jaiak direzenetan, gazteengandik ikusten doguzan ikuste-koak gogoan izan ezker, neska-mutillak inolako ganora barik diarduela, kantuka, garrasika ta orroka, edozegaitik musturrek austen alkarri, kale-ertzak bonbitu-larriz da garnuzka nunnai ta zikinduz, zaindutariko bedartza soloak gorritu ta kakastuz baita... da, dan-dana arda edo paittar edarian moskorpean, euren buruen jaube ez direla eta, gero, edonun luze-luze etxunik egoteko, biaramona-gaz urrengo.

Onek guztiek, kontu obia izango ebien bakoitzak berea zaintzen, argiago eukiaz eta euren lomoskorra kanpoko-aizetan astintzerakoan begitxu batez itxita soil-soilik egin, jakingo baeben jakin, eurelaktzueri zelakoak etor iakiakan gan-ganera orrela ibiltarren.

Eundez urte gitxiz atzerago jasorikoa dogu au, da Bil-boko zazpi kalietako batzueri gainera. Nik dinotezan egu-netan, erritar geienak eurengeitak biziko zereginetan ziar-duelarik, mutilkozkeri bat praka mozdunek danak, berriz, eskolara ezda etxeoari laguntzerako egozanak, kapatsa

erre alian da agotik keia ta txistu-bitzek botaka, txakur berbeta espanetan da barriketa otsian, zelan ez, baita ere euren azerikeri barriak asmatzen, olge tokietako jearle-kuetara batzen zirean.

Banan-banangoak izan bere ardure bagako kanpozale onek, etxeko kaltiak ta biurriak inon baziren, ezerk ez deusiela, urtenak; deungian, barrabaskerian eta zantarkerietan kalietan ikasitakoak eroizanak. Bake zaliari erne-gue emoten beti, barre zantzo ta okoizpetakoakaz lotsatu eraginez. Azokatarako astoari tiragomaz mukurretara aparetan, gauetarako kaleko argiak arrika amatatuz... eta fruita sasoietan, zer esan gero! zer esan ez...

Ortuetako arlo-txangalak, arri-ormaz gordeta, ta ganak burdin estanaz babestuta euki arren, alperritakoak ziren arentzat lapurketan aurrera egiteko, patarien antzean sapal eta lorrindurik itziz, euren nabarmenkeriaren ostean.

Esango dizuet bada zelakoak otuten iakiezan otu bere...: kerizeari, gorritzen ere lagatu ez, eta ondakinek



txorientzat bere ez. Sagarrekin bardin, arkaxkotxotu baino leen. Ikoarekin ainbeste meleutu orduko, txinboak eta patari txikiak beste lurraldetarantz aldegin bearrezkotan. Mailukiekin antzera, eldutezke, bareak usaina artu baino leen. Matzarekin, mortxaka guztiak lakanduz, mazpasatuz baino askoz arinago, kurubioak eta erleak, gozokiten egazka urrunagoetarantz. Intxaurrekin, natoetan dagozela, kastor zein txistor bardin zorrora.

Txori-kabietan, kukuarena batzurekin, arranoarena bestetzuekin... da arek trizkantzak ikusita, Ejiptoko plagaren bat andik izan ote zan esan eukienla, itziten ebezan baztarrak.

Aren danen buruduna ziarduala, gazte bizarpeitu bizkor bat zan eta inpernuko txitxirri bera baino ugerra, latrie ta petralagoa zana, eta debeku bagako au zelakoa zan ertxi bat egin dagizuen, jakin egizue, beren gurasoak, naiko gaztiak ondinokarren, zarkildute agozala emoten autsien bizimodu trarragaitik, larri-kalietatik eroiezalako auzo-koen erosta artian.

Naiz ta euren semea beren zentzunera leen bai leen ekar-arazteko, lepo betenak barda bategaz emon gurez egon, etxeko nagusiak ezin ei eban arrapatu ezelan bere beren atzaparretan, eta sarritan egoten-ziren arduetan noretara emon eta eban asmatu ezinda, nondik ekarritako aga ote zan baita.

Urteak aurrera ioiakiezala gazte orren irudia danetik egongo zan aldatuta baina ez beren izakeratan, bai zera egon!

Udako egun baten, portu-egalian jaiak zirela-ta, beren betikoekin lagun, aize eperdi eta eurenak egiteko, baita egunari koipia ateratzeko asmotan, arako bidia artu ebien.

Arentzat ondo ibiltea kontuxu, edariten zan, eta orre-lan etorri bere iakiezan gaueko illuntasuna matrakarik-matraka, apaizketan, eta... bastarrak naastuiez. Ango txiriboginetako argiak amatatu zirenerako eta onbideko erritarrak euren etxe-zuloetan ogeratuta egozala, gure edan sarriak albalbaka danak eta zutunik euki ezinik, zirkun-zarkun euken moskorra astintzera angoo baselizako ezkapera bideratu zirean. Gaueko orduak emon da gero... egoan lauso artean, txalupa bat gizonezkoekin eta txitxiparragaz azkor eraginda, arako jai-lekura ertzeratu zan, ixil-mixillean... eta arnas zurrustadak da aize purruztadak ugaritan entzutekoak zirean tokire aztertuz, an bertan beraz etxunik zeuden danak, baba zorroak bai-

lirean leporatuz eta eurokin eroan ebezan euken itsasontzi barrura, bear izan eben gizadi urritasune orniduteko, batek be igarri bagarik. Antza artunda egongo zarie nor-tzuk zirean orrako orrik, bai ondotxu jakin bere: “-LEBAKOAK”, ikaragarritzko berba izena entzutera-koan ordukoentzat!

Olan bada beingoan amaitu zirean arin gazteen maltzurkeriak; etor iakiezan azkenian euren “-SANMARTINAK” etorri bere, eta ez dot uste onen utzagaitze arduetan itxiko ebenik, gurasoak bear-bada, eta ez danenak, ori ziur!!

Aurrerantzien, egozaneko ontzi barrutik inora iges egiterik ez eta... danen agindupean morroitzan ekingo eutsien ixil-muztean, zuur beti esanaletara, lan urri da neketsuetan, zutunik-zuzen beti, ezeren deskeile izan barik, txibitien astinketari bildurrean eta moko-truke gainera.

Orduko itsasketa luzeetan, egunak ekarren astintzera-koak aro on zein txarra izan perustuta edo euritan brialduta egin bearra eukana zan aspertu arte, gogait egotea zer zan ezekitela.

Goizerik asita begiak durdo-durdo euki eukiezela, garbitasunezko ekioan azten zirean galdarakada-urek tosta-gan eta bizkarra danean bota ta zabalduz, txarran-txiagaz igurtzietan ekin eta ekin: mostretsaz loiek atara, egurrek eta olak euren aurpegi argia erakutsiarte. Urretutekoari, ugerra, sioa ta gardenak kendu, arluzien eta birrist argi lagatuz, lambroxtxie bera baino garbiagotan eukiz.

Erabiliagaz sokatari etendutako lakainak egokitu eta txiringolatuen itzi barik, matasan batun eta euren lekuetan gorde. Aize-oial maistuak ala urrututa apurturikoak, txaplataz joziz eta joziz, tolestuz ondo eta arauz eta patxara onean atako legorpe zulo-itsuan gorde.

Mastaetako aize-oialak, jantzi ala erantzi, unamaz lotu edo askatu aren agakoetara igonda, aize popaz lagun edo ekaitza zalakoetan trapa ganetara igon eta janolienak eginenez, eginak dardarrean, besoak oilo-eperditan, aize-otzak iruntziala, erne begira urrun zabalera eta bekaldekoari aldarrika ezeren barri jakiterakoan, beti”miruen bustenian legetxe”.

Upalategiak, lo-sabaia, eta ganerako zulo guztiak aramu-sare ta arratrotzarrez atzituz, aizeratuz, ur-loi geldoak txoletaz batun da topinetan atara, itsasoari botaterako gero.

Onik ekin guztiak itsas uraren ekinaletako dantzan ziren beti egiten, orain burukadaka zala, biurrien... eta egune amaitzerakoan iola lo egin bear ebien marraga baten barruen edoietik eskegita saguzar bat legez eta siguka.

Onek gauzok orrelan zirela arek mutil koittaduak jan ezda, indargatuz gaisotuta il egin zirean banan banan itsasoak iruntziala eta euren burudun zana lotu zan danetik bizirik, makailu erre urdi gazi gardemutan mamelu-zaararak eta asmien azal koxkorak jan bear izan arren, urgeza geldiak edanda, ta ardi-korotzezko alakoak ez besterik egiten ebazalarik.

Mutil orrek artun eban itxurea ikustekoa izan ei zan: soineko erropa zaararak salgan ta tarratadak alan edo olan ipingiz adobatuaz, buruko uletza motxotaz batunda ta loien-loiez bartzetan, orpoz da bernutzik..., arek euki ei eban bai euki bere bizizturen baten jasa!

Olakoetan urte mordo bat emon eta gero azkian itxita Ameriketan lurreratu zan beren bizimodua barritzen,

berenetik biziaz “Ogi gogorrari agin zorrotza eginda”, zertaz asi zala uzte dozue, lagunok...?

Baeda, itsasontzietako tresnakin artu emonek eukazan orniduraz, eta bere izardiz egin eban zorriegaz aurrerantzian apurren bat nasei bizi al izateko, erri ta aitamen min zala, onen etxeruntza osteratu zan soineko zuri jantziak, jipi-japazko kapelaz eta urregorritzko eraztunakaz apainduta, pipeari tengeka inork ez ezagutu ebala eta gurasoen bizi-lekuan aurkestzerakoan negar baten eta beleunbiko parkaske besarkatu ei zitudan danak.

Arrezkeroz beragaitik aukezan diru-zorrak kittutuz eta berak jasoriko neke-minek ta atzekabeak baita ikusitako gorriak eta baltzak, elorriek eta iztu-larriak eta beren laguntzarren pena aundizko agoline alboerrietan zabalduz, eta beren errikoen adiskidetasuna irabaziz, etxezulo bat biurtu zala ziñoen baten batzuk. “DIABRUA ERE BEREN ZENTZUNERA ETORRI EIZAN ZAARTZARROAN”.

**Alberto Narbaiza Etxeandia**

## AGURRA

Mungia eder, itz egidazu  
seme argitsuen bidez,  
Mentxaka eta Zameza gizon  
jakintsuaren eskarrez,  
seme jatorrak izan zenduzan  
zeure ederraren omenez,  
gora ta gora esan bear dot  
gizon orrei dei egiñez

Mentxaka jauna agurgarria  
Mungiar giza semea,  
Bizkai, Gipuzku ta Arabarren  
abade danen maisua,  
egiz, egia zabaltzen zendun  
Jainkozko irakatsia,  
Euskalerriko giza semeak  
lor্তু egien argia.

Jakituria berez da eder  
irakurgai orrietan,  
baiña erritar seme argiak  
urretzen dabe itzetan,  
Mentxaka eta Zameza jaunak

gora zaitue benetan,  
mundu baltzari argi egiñaz  
bizitzako urtietan.

Mungiar seme Zameza jauna  
goi argiagaz beterik,  
maisutza on bat egin zenduan  
munduari itz eginik,  
Erroman bertan jarri zinduzen  
maisua nagusi eginik,  
mundu guztira argi zabaltzen  
Mungiar seme izanik.

Iñoiz ez ziran geldi geratu  
jakituriaren aurrez,  
euren almenak agintzen eutsen  
lana eitera indarrez,  
gizadi onek izan egian  
laguntza argitasunez,  
bizitza zurra moldatuteko  
bizitzearen omenez.

**Paulin**



*Kanpoko zatiak barruan dagoz, baña danak ez, bat ez dago. Zein?*

# BBK

**EUSKERAZALEAK**

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 Euro)

# txartelak



## **BBK txartelek opariak gordetzen dituzte**

Ordaindu erosketak edozein  
BBK txartelekin eta, hilero,  
itzelezko opariak irabazi ahal  
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

**bbk<sup>2</sup>**